

ZOZKETAREN OINARRIAK

1.- Erakunde antolatzailea eta zozketaren data

Caja Laboral Popular S. COOP. sozietateak —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, z.k.g., 20500— duenak, EGO, EXPERIENCIAS CON PERSONALIDAD markako lagun batentzako edo birentzako 100 Ongizate, Abentura edo Gastronomía Esperientzia zozkatuko ditu, sustapen baten barruan; Espainiako 50 probintzian erabili ahal izango dira.

2.- Doakotasuna

Zozketa hau doakoa da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarriarik ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

2017ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitartean LABORAL Kutxaren Saltokietan Erosteko Finantzaketa-zerbitzuan eragiketa bat kontratatzen duten kontsumitzaileek hartuko dute parte zozketan. Bestalde, beharrezkoa izango da erosketan finantzatzen duen kontsumitzaileak bere helbide elektronikoa ematea, finantzaketa-eragiketa formalizatzeko unean.

Zozketa prozedura informatikoen bidez egingo da. Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

4.- Zozketa

2018ko urtarrilaren 22an egingo da, ausazko sistema informatiko bidez, sustapenean ezarritako epeetan zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean. Gainera, ordezeko 50 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

Hiru egun balioduneko epean saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago entitatearen datu-basean kontsumitzaile horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezekoarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraiki.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

EGO, EXPERIENCIAS CON PERSONALIDAD markako lagun batentzako edo birentzako 100 Ongizate, Abentura edo Gastronomía Esperientzia zozkatuko dira, Espainiako 50 probintzian erabili ahal izateko.

Zozketan, NAN bakoitzeko sari bakarria emango da. Irabazleek egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontrataturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

Irabazleek salbuetsi egiten dute LABORAL Kutxa sariaz gozatzean izan lezaketen edozein kaltetatik.

6.- Sariaren fiskalitatea

Saria indarreko legedian ezarritako zergen eraginpean egongo da. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko. Zergen alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Ez baditu baldintzok betetzen, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezekoari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Kontsumitzaileak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.

